



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 1a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrek osasun-sistema publikoarekiko izan duten konfiantza berreskuratzera. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (3. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da hobetu dezan Nafarroan minbizidun haurrek jasotzen duten zerbitzua. atricia Fanlo Mateo andreak, Ana Isabel Ansa Ascunce andreak, Domingo González Martínez jaunak, Mikel Buil García jaunak eta María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten pertsonen premiazko zenbait beharrian aintzat har ditzan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere. Ángel Ansa Echeagaray jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako “Balio Zibiko eta Etikoak” eta “Geografia eta Historia” irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da 1978an Iruñean izandako gertakariei buruzko unitate didaktiko bat gehi diezaion “Oroi-mendun Eskolak” proiektuari. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Conecta Fiction nazioarteko topaketari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. 2022ko otsailaren 7ko eguerdiko hama-biak arte luzatzea Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea. Aipatu foru lege proiektua 2021eko abenduaren 14ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/LEY-00013).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrek osasun-sistema publikoarekiko izan duten konfiantza berreskuratzera.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita herritarrek osasun-sistema publikoarekiko izan duten konfiantza berreskuratzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikia dagoen Ana Ansa Ascunce foru parlamentari andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Pandemiako hogeitahilabete hauetan denetatik ikasi behar izan dugu SARS-CoV2 birus berriari buruz, zeinak behartu gaituen epidemiologiako ohiko metodoekin batera "proba-akats" moduko beste metodo batzuk abiaraztera eta hori guztia, aldi berean, presio sozial eta ekonomikora doitzera.

Zientziaren arrakasta ukaezin bat izan dugu: txerto eraginkorrek diseinatzea errekorreko denboran. Txerto horiek ahalbidetu digute infekzioaren hilkortasuna eta larritasuna nabarmen murriztea eta era berean denbora irabaztea balizko beste terapia batzuk bilatzeko.

Baina txertoek ez dute geldiarazi kutsatze-ahalmena eta, berriro ere, lan-zama nagusia – kasu kopuru handiaren detekzioa eta jarraipena-gainkarga izan da jadanik gainezka eta alde aurretik indartu gabe zegoen Oinarrizko Osasun laguntzarentzat. Ondorioz, osasun sistema osoa kinka larrian geratu da.

Omicron aldaerak aurrekoen bestelako portarea du, kutsatze-ahalmen handiari batzen zaiolako, zorionez, txertatutakoendako larritasun urria. Berriro ere, zientziak ez du ziurtasunik pandemiaren bilakaeraz.

Aditu asko diotenez seigarren olatu honek ekar lezake pandemiarekin bukatzeko behar dugun immunizazio masiboa, nahiz eta birusa gure artean geldi modu endemikoan, gripearekin gertatu zen bezala. Beste batzuen arabera zuhur eta tentu handiagoz jokatzeko eskatzen dute.

Itxaropentsu baina zuhurtzia handienarekin, esan genezake ezen, bestelako ezaugarriak dituen beste aldaera agertu ezean (egiazko arriskua baita, txertaketa benetan unibertsala ez den bitartean), pandemiaren amaieraren egoera erreallitate bat izan litekeela datozen asteetan.

Beraz, badirudi agertoki berri baten aurrean gaudela, eta une egokia dugu eztabaida ireki, zenbait estrategia berrikusi eta lehenagoko akatsak zuzentzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Herritarrek osasun sistema publikoarekiko izan duten konfiantza berreskura dezan, balioan jarri osasun arloko langileen ahalegina, konpromisoa eta egindako lan ona, pandemian zehar kudeaketan zuzen egindakoak errebindikatuz eta plan bat proposatuz neurri zehatzekin, batzuk talka-neurriak

eta beste batzuk epe ertainekoak, zuzentze aldera pandemiaren ondorio larrienak eta mingarrienak.

2.- Osasun gaietarako komunikazio sistemak hobetu ditzan. Osasun arlorako komunikazio estrategikoaren plan bat diseina eta bultza dezan, gardentasunez eta zuhurtiaz, alferrikako alarmarik zein itxaropen hutsalik sortu gabe.

3.- Osasun arloan lidergo handiagoa eduki dezan. Nafarroako osasunerako nahi duen eredia zehatz dezan, zain dugun osasunari buruzko legearen bidez.

4.- Oinarrizko Osasun Laguntzan hartutako neurriak egonkortu, erizaintzako langile gehiago jarri, ebazte-gaitasuna areagotzen duten baliabide teknikoak ezarri, onbideratzea eta psikologia hurbildu edo osasuneko azpiegitura gehiago jarri dezan, besteak beste, eta hori bultzatzeko behar den estrategia azkartu dezan.

5.- Jadanik sortu den Adituen batzorde independentearen jarduera bultza dezan. Batzordea

ospea duten izendapen publikoko profesionalak osatzen dute, segidako olatuetan erabilitako estrategiak ebaluatu eta auditatzeko.

6.- Seroprebalentziari buruzko beste azterlan bat egitea, herritarren artean oro har eta profesional sanitario eta soziosanitarioen artean bereziki, ahalik eta gertuenetik ezagutzeko gure erkidegoko errealitate pandemikoa.

7.- Ahalik eta azkarren ekin diezaion, osasun ereduari buruzko edozein eztabaidaren emaitzaren zain geratu gabe, osasun arloko profesionalen egoerari, lanaren, ordainsarien eta gogoaren aldetik dituzten baldintzei begira.

8.- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren lidergoa indartu eta bultza dezan, COVID-19aren gaur egungo egoeran zein etorkizuneko pandemietan erabakiak harzterakoan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da hobetu dezan Nafarroan minbizidun hurrek jasotzen duten zerbitzua.

ATRICIA FANLO MATEO ANDREAK, ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK, DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK, MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK ETA MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak, Ana Isabel Ansa Ascunce andreak, Domingo González Martínez jaunak, Mikel Buil García jaunak eta María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita hobetu dezan Nafarroan minbizidun hurrek jasotzen duten zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatzeko: Osasun Departamentua premiatzen da minbizia duten Nafarroako haurrendako laguntza hobetu dezan.

Haurren minbizia da oraindik ere herrialde garatuetan haurrak gaixotasun bat dela-eta hiltzeko zio nagusia. Munduan, 250.000 kasu inguru diagnostikatzen dira urtero.

2021ean, Nafarroako Foru Komunitatean 107 familia artatu ditugu –1989tik, 515–, 16tik 18ra bitarte diagnostiko batez beste, %75-80ko bizirau-pen-indizearekin. 2021ean, 40tik 50era bitarte haur egon dira tratamenduan, eta leuzemia eta garuneko tumoreak dira haurrengan gehien ematen diren minbizi motak.

Helduek izan dezaketen gorputz-atal berberetan izan dezakete hurrek minbizia, baina badau-

de aldeak; supituan gerta daiteke, inolako sintoma goiztiarrik gabe. Sendatze-indizea ere handiagoa da: % 75 ingurukoa.

Haur-minbizia gainditu duten neska-mutikoek sekuela fisiko edo psikologikoren bat edo ondorio berantiarren bat izanen dute gaixotasunaren beraren nahiz tratamenduen ondorioz.

Tratamenduen konplikazio berantiar batzuek gaixotasun kroniko bat edo desgaitasunen bat eragin ohi dute; protesia beharrezkoa egiten duten aho-hortzetako sekuelak, batik bat. Erradioterapia eta kimioterapiako tratamenduek osasunari kalte egiten diote lehen hortzaldian, eta orobat eragozten dute behin betikoa; hortaz, PADI-Haurren Hortzetako Osasun Laguntzaren Programa handitu beharra dago, neska-mutiko horiei aho-hortzetako laguntza egokia emateko.

Ikerkuntza funts-funtsezkoa da haur-tumoreak sendatzeko bidean aurrera egiteko nahiz egungo tratamenduak hobetzeko eta haur horien biharko bizi-kalitatea mugatzen ahal dituzten sekuelak murriztea lortzeko.

Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Opor, lizentzia eta baimenen erregelamenduaren 13 bis artikulua ezartzen duenez, salbuespenez, lanaldiaren murrizketa % 75era bitartekoa izanen da gehienez ere. Sektore pribatuan eta beste administrazio batzuetan, % 99ra bitartekoa da.

2017an, Diputatuen Kongresuak legez besteko proposamen bat onetsi zuen, zeinaren bidez minbizia duten haur eta nerabeei % 33ko desgaitasuna aitortzen baitzaie diagnostikoa egiten den unetik beretik, halako moduan non laguntzak eta zerbitzuak jaso baititzakete Otik 14 urtera bitarteko adingabeek eta haien familiek; Nafarroako Foru Komunitatean, ordea, hori ez da ezartzera iritsi.

Ebazpen proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Nafarroan legez ezarritako gaixotasun larri bat edo minbizia duen beren kargurako adingabe bat modu zuzen, jarraitu eta iraunkorrean zaintze aldera lanaldia eta soldata murrizten duten gurasoek, adoptatzaileek edo harrera-egileek pairatzen duten diru-sarreraren galera konpentsatzeko sorospena alda dezan eta, horrenbestez, Opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua alda dezan, tartea % 50etik % 99ra bitarte igotzeko.

2. Nafarroan minbizia duten neska-mutikoen aldi baterako desgaitasuna onar dezan eta Diputatuen Kongresuak 2017an onetsitako legez besteko proposamena aplikatu dezan Nafarroan –horren arabera, minbizia duten haur eta nerabeei % 33ko desgaitasuna aitortzen zaie diagnostikoa egiten den unetik beretik–, Otik 14 urtera bitarteko adingabeek eta haien familiek laguntzak eta zerbitzuak jaso ahal izan ditzaten.

3. 2. puntuan adierazitako desgaitasuna onar dezan eta onarpen hori urrutetik egin dadin, minbizia duen neska-mutikoak zentro nagusira joan behar izan gabe.

4. PADI-Haurren Hortzetako Osasun Laguntzaren Programan sar daitezkeen txantxarrak, lehen hortzaldiko hortz-erazketa aurreratu gabeak eta minbizia duten bigarren hortzaldiko haur nafarren hortz-protesiak.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo, Ana Ansa, Txomin González, Mikel Buil eta Marisa de Simón

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten pertsonen premiazko zenbait beharrian aintzat har ditzan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita minbizia duten pertsonen premiazko zenbait beharrian aintzat har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2019ko abenduko osoko bilkuran aho batez onetsi zen Navarra Sumak aurkeztutako mozio bat, Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutzeko.

Osasun Departamentuak ez du mozioa bete eta premiazko beharrianak daude Nafarroan minbizia dutenendako detekzio goiztiarrean eta arretan. Hobetu beharreko arlo zehatzak daude, jorratu eta konpondu behar direnak, ekidite aldera pertsona askoren osasunari eragin diezaioten ondorioak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du umetokiaren lepoko minbiziaren detekzio goiztiarreko populazio-programa bat abiaraz dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berreskura dezan bula-

rreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programetan azken bi urteetan izandako atzerapena, gehienez ere sei hilabeteko epean.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tresnak eta baliabideak eskain ditzan Nafarroan minbizia dutenei arreta integratu eta integrala bermatzeko.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan gaixo onkologikoendako arreta jarraitua ezar dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan minbizi hereditarioa duten pertsoneri arreta goiztiarreko programa bat prestatu eta ezar dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

6.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerbitzuen zorroa ezar dezan bermatze aldera minbizia dutenendako medikuntza pertsonalizatua abiarazten dela, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zorro osagarrian sar ditzan tratamendu onkologikoaren ondoriozko aho-hortzetako arreta eta prestazioak, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

8.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arautu dezan dieta eta egonaldirako prestazioen igoera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalek bidalita Osasun Sistema Nazionaleko ospitaletan kontsulta jaso eta ospitaleratu behar duten haur nafarren bi guraso edo seniderendako, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

9. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zainzaileari laguntza emateko programa bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

10. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du minbizia duten gaixoei arreta integratua emateko prozesuen ebaluazio integralerako sistema bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez sei hilabeteko epean.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere.

Zioen azalpena

Tuterako Campusaren Talde Eragilea Tuterako Udalaren ekimen bat da, zenbait pertsonak eta

gizarte- eta enpresa entitatek eta entitate publikok osatua, lagungarria izan nahi duena erakunde-proiektu bat garatzeko, hain zuzen, Tuterako Campusaren proiektua. Faktore proaktiboa da, proposamenak egin eta gizartea dinamizatzen. Tuterako Campusaren Talde Eragilea palanka sozial bilakatu da, Tuterako Udalaren laguntza eta babesetik abiatuta. Buruzagi sozialek, elkarteetako eta enpresetako ordezkariak, teknikariak eta erakundeetako ordezkariak osatzen dute.

Taldearen helburu estrategikoetako bat da eskualdeko goi mailako prestakuntza sustatu eta dinamizatzea. Erriberan maila guztietako prestakuntza espezializatua, Lanbide Heziketakoa nahiz maila unibertsitariokoa, birbideratu eta programatzeko tresna da.

Iragan irailaren 29an, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Bartzordearen lan bilkura batean, "Erriberako ikasleak. Beharrianak eta itxarokizunak" azterlana eta haren ondorio nagusiak aurkeztu zizkiguten.

Horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste:

— Erribera garapen profesionalerako ingurune gisa. Zer falta zaio Erriberari kanpoko ikasleentzat erakargarriagoa izateko? Ehuneko 70ak dioenez, aukera eta espezialitate gehiago izatea. Aipatutako arrazoietatik pisu gehien duen bigarrena da "kultur eskaintza zabalagoa". Ehuneko 40k aipatzen du. Eskualdeko ikasleen artean, Erribera da bizitzeko lehenengo aukera. Beren eskualdean geratzea aukeratuko lukete gehienek. Erriberan institutuko ikasketak, Lanbide Heziketakoak edo unibertsitatekoak egiten ari diren gazteen erdiak baino gehiagok dio Erriberan bizitzen jarraitzeko asmoa duela lan eskaintza egokia aurkituz gero. Erriberatik kanpoko unibertsitateko ikasleen artean, eskualdeak ikasteko ingurune gisa duen baliorik handiena da hiri txiki eta irisgarria dela. Arrazoi hori aipatzen du ehuneko 70ak. Babes gehien duen argudioa da –ehuneko 40k aipatzen du– "zerbitzu guztiak eskaintzen dituela".

— Erriberako ikasleek eskatzen dituzten espezialitateak. Oro har, gazteek uste dute espezialitate aukera eta hezkuntza eskaintza zabalagoa behar dela eskualdean. Eskaera handiena duten espezialitate-adarrak honakoak dira: osasunarekin loturiko espezialitateak, lanbide heziketako eta unibertsitateko mailetan; bi maila horietan, baita ere, ingeniariak eta industria-espezialitateak – hemen maiz aipatzen ziren nekazaritzako elikagaiekin loturiko adarrak–; hezkuntza-arloko espezialitateak, batez ere Magisteritza, Haur Hezkuntza eta GHIN, kirol-heziketa eta heziketa fisikoa; giza eta gizarte zientzietako espezialitateak. Eta, beste maila batean, hiru arlo horiek baitira aipatuenak, espezialitate teknologiko eta digitalak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien alorrean. Unibertsitateko ikasketei dagokienez, behin eta berriz aipatzen da egun unibertsitatean eskaintzen diren espezialitateekin loturiko masterrak garatzeko beharra.

Gaur egun, NUPek Tuteran duen campusean bi gradu bakarrik eskaintzen dira: Fisioterapia gradua eta Diseinu Industrialerako Ingeniaritza, eta hauek egiten dute NUPek eskaintzen dituen gradu titulazio guztien ehuneko 8 (titulazioak, guztira, 25 dira, 6 gradu bikoitzez gain).

Uste dugu beharrezkoa dela inplikaturako eragile guztiek –alderdi politikoek ere bai, noski– bat egitea, Erriberak goi mailako ikasketen eskaintza erakargarria izan dezan, Erriberako gazteen eska-

kizunei erantzunen diena eta gure erkidegotik kanpoko ikasleak erakarriko dituen.

Duela hilabete batzuk, Nafarroako Parlamentuak eta Tuterako Udalak Navarra Sumak aurkeztutako mozio bat onetsi zuten, NUPen Matematikako Gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua 2022-2023 ikasturtean ezartzeko egin beharreko azterketak eta azterlanak egin daitezzen. Azken gradu hori errealitate bihurtuko da 2023-24 ikasturtean, errektoreak iragarri zuenez 2022-2024 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmena sinatzeko ekitaldian. Hori denez, hain zuzen, Erriberako gazteen eskakizunetako bat, betetzeko aukera ona da; izan ere, oraindik ez da erabaki non ezarriko den gradu hori, Tuterako campusean edo Iruñekoan, eta erabaki hori hartzeko une erabakitzailean gaude.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NUPekin elkarlanean aritu dadin Tuterako campuseko prestakuntza-eskaintza indartu eta sendotzeko, Erriberako gazteriak aldarrikatzen duen norabidean, halatan gutxienez ere ezarriz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu berria, bai eta jadanik irakasten den Fisioterapiarekiko gradu bikoitza ere.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako “Balio Zibiko eta Etikoak” eta “Geografia eta Historia” irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da 1978an Iruñean izandako gertakariei buruzko unitate didaktiko bat gehi diezaion “Oroimendun Eskolak” proiektuari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2022ko urtarrilaren 25ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako “Balio Zibiko eta Etikoak” eta “Geografia eta Historia” irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da 1978an Iruñean izandako gertakariei buruzko unitate didaktiko bat gehi diezaion “Oroimendun Eskolak” proiektuari”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako “Balio Zibiko eta Etikoak” eta “Geografia eta Historia” irakasgaietan sar ditzan gure herriko oroimen historiko eta demokratikoari buruzko hezkuntza-edukiak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du 1978an Iruñean izandako gertakariak errepassatzen dituen unitate didaktikoa “Oroimendun Eskolak” proiektuari gehi diezaion”.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Conecta Fiction nazioarteko topaketari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Conecta Fiction nazioarteko topaketari buruz Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Kultura eta Kiroleko Batzordearen hurrengo bilkuran ahoz erantzun dezan:

Conecta Fiction nazioarteko jardunaldiak zergatik ez dira egiten Iruñean aurten?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

